Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko abenduaren 3a, ostirala — 232 — Viernes, a 3 de diciembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## UROLA GARAIA UDAL - ELKARTEA

*Iragarkia*

Urola Garaia Udal Elkarteko Lehendakariak, 2021eko azaroaren 23an emandako ebazpenaren bidez, Lanbiden enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak kontratatzeko Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako enpresak diru-laguntzak eskatzeko prozedura arautzeko oinarriak onartu ditu.

Ondoren, oinarri horiek argitaratzen dira eta deialdia egiten da.

Legazpi, 2021eko azaroaren 23a.—Jon Luqui Albisua, lehendakaria. (7563)

*Enplegu sustapenerako toki-ekintzetarako laguntza-deialdiaren barnean kontratazioko laguntzak eskatzeko prozedura arautzeko Oinarriak.*

1. *Araudia.*

— Ebazpena, 2021eko ekainaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntza-deialdia argitaratzekoa (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2021/06/30).

— Ebazpena, 2021eko azaroaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeko Zuzendariarena, Enplegua sustatzeko Toki Ekintzetarako 2021eko dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

— 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzko orokorra (*Boletín Oficial del Estado*, 2003-11-18).

— 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzekoa (*Boletín Oficial del Estado*, 2006-07-25).

2. *Xedea.*

Deialdi honetako oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen helburua Urola Garaiko enpresei laguntza ekonomikoak ematea da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsona langabeak kontratatzeko.

Publizitate, konkurrentzia eta objektibotasun printzipioei jarraiki, eta gardentasun parametroz, oinarri arautzaile hauek sustatzen dira, hain zuzen Urola Garaiko enpresen artean eta langabe-kolektiboaren barnean ahalik eta zabalkunderik handiena izan dezaten.

3. *Programaren finantzaketa.*

Diru-laguntza horietarako baliabide ekonomikoak 69.000 eurora iristen dira. Urola Garaia Udal Elkartearen 1 0000 471 241 00 01 aurrekontu sailean esleituta daude, eta haien jatorria Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeko Zuzendariaren 2021eko azaroaren 8ko Ebazpenaren bidez Udal Elkarte honi emandako laguntza da (2021/Lppel/000040 espedientea).

Deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzak honela banatuko dira:

## MANCOMUNIDAD UROLA GARAIA

*Anuncio*

La Presidenta de la Mancomunidad Urola Garaia, mediante Resolución de fecha 23 de noviembre de 2021, ha aprobado las bases reguladoras del procedimiento de solicitud de ayudas para la contratación de personas desempleadas e inscritas en Lanbide por parte de empresas de Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu y Zumarraga.

A continuación se publican las bases y se realiza la convocatoria.

Legazpi, a 23 de noviembre de 2021.—El presidente, Jon Luqui Albisua. (7563)

*Bases reguladoras del procedimiento de solicitud de ayudas a la contratación enmarcado en la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo.*

1. *Normativa reguladora.*

— Resolución de la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo de 16 de junio de 2021 sobre ayudas para Acciones Locales de Promoción de Empleo (*Boletín Oficial del País Vasco* 30/06/2021).

— Resolución de la Directora de Activación Laboral de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo de 8 de noviembre de 2021, por la que se resuelve la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para 2021.

— Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18/11/03).

— Real Decreto 887/2006, de 21 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 25/07/06).

2. *Objeto.*

El objetivo de las ayudas reguladas mediante las presentes bases es proporcionar apoyo económico para facilitar la contratación de personas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide- Servicio Vasco de Empleo, por parte de las empresas de Urola Garaia.

En aras a los principios de publicidad, concurrencia y objetividad, bajo parámetros de transparencia, se promueven estas bases reguladoras a fin de que tengan la máxima difusión posible entre las empresas y el colectivo de desempleados y desempleadas de Urola Garaia.

3. *Financiación del programa.*

Los recursos económicos destinados a estas ayudas ascienden a 69.000,00 € consignados en la partida 1 0000 471 241 00 01 del Presupuesto de la Mancomunidad Urola Garaia para 2021 y provienen de la ayuda concedida a la Mancomunidad Urola Garaia mediante Resolución de la Directora de Activación Laboral de Lanbide – Servicio Vasco de Empleo, de 8 de noviembre de 2021, expediente n.º 2021/Lpeel/000040.

Los fondos destinados a la presente convocatoria serán distribuidos de la siguiente forma:

EK\CV GAO-I-2021-07563

6 hilabetetako lanaldi osoko 10 kontratu eta 6 hilabetetako lanaldi erdiko 3 kontratu. Kontratatuziko pertsonen % 40a (5) gutxienez emakumezkoak izango dira.

*4. Enpresa onuradunen baldintzak eta betebeharrak.*

Enpresa onuradunak honako baldintzak bete beharko dituzte:

— Lantokiak Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu edo Zumarragan egon behar du.

— IAE-JEZn alta emanda egotea eta zerga horren betebeharrak egunean ordainduta izatea, betiere enpresaren jarduerak zerga hori ordaintzea eskatzen badu.

— Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak beteta edukitzea.

— Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak beteta edukitzea.

— Enpresak ez du zorrik izan behar Urola Garaia Udal Elkartea osatzen duten udalekin, hots, Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragarekin.

— Indarrean dauden lan-arloko eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko legeria eta arauak bete behar ditu enpresak.

— Bete behar den lanpostuaren kategoria eta aplikatuko den sektoreko edo enpresaren hitzarmena kontuan hartuz, eskaeran jarri diren lan baldintzak eta ordainsariak garantizatuko dira.

— Kontratazioek enpresaren aktibitatearekin zerikusi zuzena duten lanpostuetarako izan beharko dute.

*5. Kontratatuziko pertsonen baldintzak.*

Kontratatuziko pertsonak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

— Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu edo Zumarragan erroldatuta egotea oinarri hauek argitaratzen diren datan.

— Kontratazioaren momentuan langabezian eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.

— Ahaidetasunezko harremanik ez izatea, bigarren mailarainoko odolkidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko harremanaz enpresariaren, enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza-karguak dituztenen edo Administrazio Kontseiluko kide direnen ahaide diren ezkontide, ondorengo eta bestelako senideekin.

*6. Kontratuen mota eta baldintzak.*

Kontratuen iraupena 6 hilabetekoa izango da gutxienez. Edozein kontratazio-modalitatekoak izan daitezke. Hala ere, ez dira onartuko prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak.

Lan-kontratuak iraungiz gero eskatzen den gutxieneko epea edo kasu bakoitzean diruz lagundua amaitu aurretik, itzuli egin beharko da jasotako diru-laguntza, non eta iraungitzearen arrazoiak ez dauden erakunde kontratatzailearen borondatetik at; horrelakoetan, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, lan-kontratuaren egiazko iraupenarekiko proportzioan.

Ez da itzulketa egin beharko deialdiaren baldintzak betetzen dituen beste pertsona bat kontratatzen bada eta hasierako kontratazioaren iraupena eta bigarren kontratazioarena gehituta gutxienez hasierako kontratuaren iraupenera iristen badira.

Diruz lagundu daitezkeen kontratuen hasiera data 2021eko urtarrilaren 1a eta dirulaguntza eskaera aurkezteko azkeneko egunaren artekoa izan beharko du.

Ez da diruz lagunduko enpresa batek langile bat berriz kontratatzea baldin eta enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako aurreko deialdietan laguntza jaso badu langile hori kontratatzeagatik (2015, 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko deialdietan).

10 ayudas para contratos de 6 meses de duración a jornada completa y 3 ayudas para contratos de 6 meses de duración a media jornada. Al menos el 40 % (5) de las personas contratadas serán mujeres.

*4. Requisitos y obligaciones de las empresas beneficiarias.*

Las empresas beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos y obligaciones:

— El centro de trabajo se encontrará ubicado en Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu o Zumarraga.

— Estar dado de alta en el IAE y cumplir con los pagos del citado impuesto, cuando la empresa lleve a cabo actividades sujetas al mismo.

— Estar al corriente de las obligaciones tributarias para con la Hacienda Foral.

— Estar al corriente de las obligaciones con la Tesorería General de la Seguridad Social.

— Carecer de deudas con los Ayuntamientos que integran la Mancomunidad Urola Garaia: Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu y Zumarraga.

— Cumplir con la legislación y normativas laborales y de prevención de riesgos laborales vigentes.

— Garantizar las condiciones laborales y retribuciones salariales de la solicitud, de acuerdo a la categoría profesional del puesto a cubrir, según el convenio sectorial o de empresa de aplicación.

— Que las contrataciones se realicen para puestos de trabajo directamente relacionados con la actividad de la empresa.

*5. Requisitos de las personas contratadas.*

Las personas contratadas deberán cumplir los siguientes requisitos:

— Estar empadronado/a en Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu o Zumarraga a la fecha de la publicación de estas bases.

— Estar desempleado/a e inscrito/a como demandante de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo en el momento de la contratación.

— No tener relación de parentesco con el cónyuge, descendientes y demás parientes que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad hasta el segundo grado inclusive, con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o, en su caso, sean miembros del Consejo de Administración.

*6. Tipología y requisitos de los contratos.*

La duración mínima de los contratos será de 6 meses. Podrán formalizarse bajo cualquier modalidad de contratación laboral, a excepción del contrato para la formación y el aprendizaje.

La extinción de los contratos de trabajo con anterioridad al periodo de duración mínimo exigido, supondrá el reintegro de la subvención concedida, salvo que tal extinción sea debida a causas ajenas a la voluntad de la entidad contratante, en cuyo caso se reducirá el importe de la subvención en proporción a la duración efectiva del contrato de trabajo.

No procederá el reintegro cuando se sustituya a la persona por otra que cumpla los requisitos de la convocatoria y siempre que la suma de los periodos de contratación sea como mínimo la del contrato inicial.

La fecha de inicio de los contratos no podrá ser anterior al 1 de enero de 2021 ni posterior a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

No será objeto de subvención la contratación por la misma empresa de un mismo/a trabajador/a si esa contratación ha sido subvencionada en convocatorias anteriores de ayudas para acciones locales de promoción de empleo (convocatorias de 2015, 2016, 2017, 2018, 2019 y 2020).

EK\CV GAO-I-2021-07563

Enpresak, 7 egun naturaletako epean komunikatuko dio Administrazio honi kontratazioaren ondoren sortu daitekeen edozein aldaketa edo arazo.

7. *Laguntza ekonomikoak.*

Gehienez 6.000 euroko 10 laguntza 6 hilabete edo gehiagoko iraupeneko lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko eta gehienez 3.000 euroko 3 laguntza 6 hilabete edo gehiagoko iraupeneko lanaldi erdiko lan-kontratu baterako.

Enpresak jasoko duen laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan pertsona kontratatuen soldata eta gizarte segurantza kostuen % 75 baino gehiagokoa.

Enpresa bakoitzak gehienez bi kontrataziotarako diru-laguntza eskatu ahal izango du. Eskaera kopuruak laguntza erabilgarrien kopurua gaindituko ez balu, soberakina bigarren kontratazioak diruz laguntzeko erabili ahalko da, lehiaketan lortutako balorazioa jarraituz xede horretarako.

8. *Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat etortzea.*

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntza hauek ezin izango dira bateratu kontratazio berbererako eta kontzeptu eta helburu berberetarako beste administrazio publiko batzuek edo beste erakunde pribatu edo publiko batzuek emandakoekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariekin izan ezik.

9. *Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen eskaera egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

— Urola Garaia Udal Elkarteak prestatutako eskabidea, udal elkartearen bulegoetan (Patrizio Etxeberria, 3, solairuartea, Legazpi) interesatuen eskura egongo dena.

— Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta ahalordeeskritura, hala badagokio.

— Enpresa eskatzailearen IFZ txartelaren kopia.

— Indarrean dagoen lan-araudia eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa betetzeko konpromisoa, Urola Garaiko Udal Elkarteak eskainitako ereduaren arabera egina.

— Pertsona kontratatuari bere lana egiteko behar duen materiala eta jantziak emateko konpromisoa. Urola Garaiko Udal Elkarteak eskainitako ereduaren arabera egina.

— Enpresak diru laguntza ordaintzeko ematen duen kontu korrentearen jabetza egiaztatzen duen bankuko agiria.

— Kontratuaren kopia.

— Kontratatutako pertsonaren Gizarte Segurantzako altaagiriaren kopia.

— Kontratutako pertsonaren NAN edo AIZaren kopia.

— Kontratutako pertsonaren erroldako ziurtagiria.

— Lanbideko ziurtagiria adierazten duena kontratutako pertsona langabezian eta lan eskatzaile gisa inskribatuta zegoela Lanbiden kontratazioaren aurreko egunean.

— Zinpeko adierazpena, non kontrataturiko pertsonak ahaidetasunezko harremanik ez duela, bigarren mailarainoko odolkidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko harremanaz enpresariaren, enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza-karguak dituztenen edo Administrazio Kontseiluko kide direnen ahaide diren ezkontide, ondorengo eta bestelako senideekin.

Urola Garaia Udal Elkarteak zuzenean egiaztatuko ditu honako datuak, dagokion administrazio publikoarekin harremanetan jarrita:

— Enpresa eskatzailea IAE-JEZren alta emanda egotea.

— Enpresa eskatzaileak Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean ordainduta edukitzea.

— Enpresa eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta edukitzea.

La empresa comunicará en el plazo de 7 días naturales a esta Administración cualquier cambio o problema que surja con posterioridad a la contratación.

7. *Ayudas económicas.*

10 ayudas máximas de 6.000 € por contrato a jornada completa de duración igual o superior a 6 meses y 3 ayudas máximas de 3.000 € por contrato a media jornada de duración igual o superior a 6 meses.

La cuantía final de la ayuda a percibir por la empresa no podrá superar el 75 % de los costes salariales y de seguridad social de las personas contratadas.

Cada empresa podrá solicitar subvención para un máximo de dos contrataciones. Si el número de solicitudes no superara el número de ayudas disponibles, podrá utilizarse el remanente para subvencionar segundas contrataciones, siguiendo al efecto el resultado obtenido en la valoración del concurso.

8. *Concurrencia con otras subvenciones o ayudas.*

Las ayudas reguladas mediante las presentes bases serán incompatibles con la obtención de cualquier otro tipo de ayuda o subvención que para esa misma contratación y por el mismo concepto y finalidad le sean otorgadas a la empresa por otras Administraciones o entidades públicas o privadas, excepto las bonificaciones otorgadas por la Seguridad Social.

9. *Solicitudes y documentación a presentar.*

Para solicitar las ayudas a las que se refiere la presente convocatoria, se deberá presentar la siguiente documentación:

— Impreso de solicitud elaborado por la Mancomunidad Urola Garaia y que se facilitará a los interesados en las oficinas de la Mancomunidad en Patrizio Etxeberria, 3, entreplanta, de Legazpi.

— Fotocopia del DNI de la representación legal y escritura de apoderamiento, en su caso.

— Fotocopia del CIF de la empresa.

— Compromiso de cumplimiento de la normativa laboral vigente y de prevención de riesgos laborales, según modelo facilitado por la Mancomunidad Urola Garaia.

— Compromiso de facilitar a la persona contratada del material y vestuario necesario para desarrollar su tarea, según modelo facilitado por la Mancomunidad Urola Garaia.

— Certificado bancario de pertenencia de la cuenta corriente que se facilita por la empresa para el ingreso de la ayuda.

— Copia del contrato realizado.

— Copia del alta en la Seguridad Social de la persona contratada.

— Copia del DNI o NIE de la persona contratada.

— Certificado de empadronamiento de la persona contratada.

— Certificado de Lanbide de que la persona contratada estaba desempleada e inscrita en Lanbide como demandante de empleo el día anterior al del inicio del contrato.

— Declaración responsable de que la persona contratada no tiene relación parentesco con el cónyuge, descendientes y demás parientes que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad hasta el segundo grado inclusive, con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o, en su caso, sean miembros del Consejo de Administración.

La Mancomunidad Urola Garaia realizará la comprobación de los siguientes datos directamente ante las administraciones públicas en cuestión:

— Situación de alta en el IAE de la empresa solicitante.

— Situación de estar al corriente de las obligaciones tributarias de ámbito foral.

— Situación de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

EK\CV GAO-I-2021-07563

*10. Eskaerak aurkezteko lekua.*

Urola Garaia Udal Elkartearen Erregistro Orokorra (Patrizio Etxeberria, 3, solairuartea, Legazpi).

*11. Aurkezteko epea eta ebazteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun baliodun izango da, oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Eskaerak osatu gabe egonez gero, 10 egun naturaleko epea emango da gabeziak zuzentzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak dioenarekin bat. Gabezia horiek zuzendu ezean, eskaerak atzera bota direla ulertu eta, beste izapiderik gabe, artxibatu egingo dira.

Diru-laguntzak ebazteko gehienezko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, deialdian adierazten den eskaeren gabeziak zuzentzeko epea bukatzen denetik kontatzen hasita.

Diru-laguntza izan dezakeen kontratazio epea 2022ko ekainaren 30ean amaituko da.

*12. Prozedura.*

Diru-laguntzak emango dira lehiaketa bidez, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ondoren ezartzen diren balorazio irizpideak aplikatuta, harik eta deialdi honetako hirugarren oinarrian ezarritako diru kopurua edo eta kontratu kopurua agortu arte.

Lanaldi osoko kontratazioetarako dirulaguntza jasotzeko eskaerak eta lanaldi erdiko kontratazioetarako eskaerak aparte baloratuko dira.

Behin aurreikusitako kontratazioak agortzen direnean, laguntzarik lortzen ez dituzten eskaerekin itxarote-zerrenda bat osatuko da.

Lanaldi erdiko kontratazioak egiteko dirulaguntza eskaerarik egongo ez balitz, lanaldi osoko dirulaguntza eskatu dutenen itxarote zerrendako lehenengo hiru enpresei emango zaie diru-laguntza.

Diru-laguntza eskuratu duen onuradunen batek ez baditu ezarritako baldintzak betetzen eta diru-laguntza bertan behera geratzen bada, zerrenda horretako lehenengoari emango zaio diru-laguntza.

Hauek dira balorazio irizpideak.

1. Kontratatutako pertsona emakumea izatea: 15 puntu.

2. Kontratatuko den pertsonari egingo zaion lan-kontratuaren iraupena:

— 6 hilabete eta egun bat eta 9 hilabete artekoa: 3 puntu.

— 9 hilabete eta egun bat eta 12 hilabete artekoa: 5 puntu.

— 12 hilabete eta egun bat edo gehiago: 8 puntu.

— Mugagabea: 15 puntu.

3. Enpresak 50 langile edo gutxiago izatea: 5 puntu.

4. Enpresa sortu berria izatea (alta 2019-09-01etik aurrerakoa): 5 puntu.

5. Lanpostuaren kualifikazio maila:

— 5 puntu: erdi-mailako edo goi-mailako lanbide heziketa.

— 7 puntu: ikasketa unibertsitarioak.

Eskaerak baloratu ondoren bi edo eskaera gehiagoren artean berdinketarik bada, lehenengo irizpidean puntu gehien lortu duen eskaeraren alde erabakiko da, hala ere, berdinketa jarraituko balu, bigarren irizpideak puntu gehien lortu dituen eskaeraren alde erabakiko da, eta horrela gainerakoak.

*10. Lugar de presentación de solicitudes.*

El Registro General de la Mancomunidad Urola Garaia sito en Patrizio Etxeberria, 3, entreplanta, de Legazpi.

*11. Plazo de presentación y plazo de resolución.*

El plazo de presentación de solicitudes será de quince días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de estas bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. En el caso de que las solicitudes estuvieran incompletas, se concederá un plazo de 10 días naturales para la reparación de la carencia de conformidad con la ley 30/1992 de Procedimiento Administrativo Común, con indicación de que si así no lo hicieran, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose sin más trámite.

El plazo máximo para resolución de las subvenciones será de quince días hábiles contados a partir de la finalización del plazo de subsanación de las solicitudes.

El periodo de contratación susceptible de subvención finaliza el 30 de junio de 2022.

*12. Procedimiento.*

Las ayudas se concederán mediante concurso, mediante la aplicación de los criterios de valoración establecidos a continuación, hasta agotar la dotación presupuestaria y el número de contrataciones total del programa de ayudas establecidas en la base tercera.

Se baremarán por separado las solicitudes de subvención para las contrataciones a jornada completa y las de subvención para la contratación a media jornada.

Una vez agotadas las contrataciones previstas, las solicitudes que no obtengan ninguna ayuda pasarán a formar parte de una lista de espera.

En el caso de que no hubiera solicitudes de subvención para las contrataciones a media jornada, se adjudicarán las mismas a las tres primeras solicitudes de la lista de espera de las contrataciones a jornada completa.

En el caso de que algún beneficiario de las ayudas no cumpla las condiciones establecidas y le sea retirada la ayuda concedida, dicha ayuda le será otorgada a la primera solicitud de la lista de espera.

Estos son los criterios de valoración:

1. Que la persona contratada sea mujer: 15 puntos.

2. Duración del contrato laboral a realizar:

— Entre 6 meses y 1 día y 9 meses: 3 puntos.

— Entre 9 meses y 1 día y 12 meses: 5 puntos.

— 12 meses y 1 día o más: 8 puntos.

— Indefinido: 15 puntos.

3. Empresas con plantilla de hasta 50 trabajadores/as: 5 puntos.

4. Empresas de nueva creación (alta posterior al 01-09-2019): 5 puntos.

5. Nivel de cualificación del puesto:

— 5 puntos: formación profesional de grado medio o grado superior.

— 7 puntos: formación universitaria.

Si tras valorar las solicitudes existiese un empate entre dos o más solicitudes, el empate se resolverá a favor de la solicitud que haya obtenido mayor puntuación en el primer criterio; si persiste el empate, se resolverá a favor de la solicitud que haya obtenido mayor puntuación en el segundo criterio y así sucesivamente.

EK\CV GAO-I-2021-07563

*13. Prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna.*

Prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna Urola Garaia Udal Elkartearen Lehendakaria da.

*14. Diru-laguntzen zuriketa.*

Enpresa onuradunek diru-laguntzaren amaierako zuriketa aurkeztu beharko dute gehienez ere 60 eguneko epearen barruan, diruz lagundutako kontratazio-epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita, eta betiere 2022ko irailaren 12aren aurretik. Diru-laguntza zuritu eta ordainketa egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

— Diruz lagundutako kontratuaren nominen kopiak.

— Diruz lagundutako kontratuaren epealdiko enpresaren Gizarte Segurantzako kotizazioaren dokumentuen kopiak.

— Diruz lagundutako kontratazioaren kosteen koadroa.

*15. Diru-laguntza ordaintzea.*

Diru-laguntza bi epeetan ordainduko da:

1. Emandako zenbatekoaren % 40 diru-laguntza emateko ebazpena eman ondoren ordainduko da.

2. Diru-laguntzaren gainerako % 60 eskabidean adierazitako kontratazio-epea amaitu, eskabidean adierazitakoa bete eta amaierako zuriketa aurkeztu eta ontzat jo ondoren.

*16. Ez-betetzeak.*

Baldintzaren bat betetzen ez bada, ez-betetze hori enpresari edo honek kontratatu duen pertsonari egozteko bada eta Lanbidek eman eta Urola Garaia Udal Elkarteak jaso behar duen dirulaguntza murriztea baldin badakar, laguntzaren jasotzaileari jasanaraziko zaio, dagokion murrizketa proportzionala aplikatuta.

*17. Errekurtsoak.*

Diru-laguntza emateari buruzko ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, horren kontrako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke, ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik hilabeteko epean, ebazpena eman zuen organoan, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezake interesatuak, bi (2) hilabeteko epean, eskualde honetako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

*18. Datu pertsonalen babesa.*

Diru-laguntza eskaria aurkeztean, erakunde eskatzaileak adostasuna ematen du, eta adierazten du deialdian ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituela eta deialdian jasotzen diren baldintza guztiak oso-osorik onartzen dituela.

Izaera pertsonaleko Datuak babesteari buruzko Lege Organikoan eta datuak babesteko Erregalamendu Orokorrean ezarritakoa betez, erakunde eskatzaileek jakin behar dute eskaera aurkeztean eta diru-laguntzen Kudeaketarako aurkeztu beharreko dokumentazioa entregatzean jasoko diren izaera pertsonaleko datuak, diru-laguntzen deialdia behar bezala mantendu, bete eta kontrolatzen dela bermatzeko helburuarekin erabiliko dituela Mankomunitate honek.

*19. Erregimen juridikoa.*

Espresuki oinarri hauetan ez jasotako guztian, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntza-deialdia onartzen duen 2021eko ekainaren 16ko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Naguasiaren Ebazpenean jarritakora egongo da. (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian*, 2021/06/30ean argitaratu zen).

*13. Órgano competente para la instrucción y resolución del procedimiento.*

El órgano competente para la instrucción y resolución del procedimiento es la Presidencia de la Mancomunidad Urola Garaia.

*14. Justificación de la subvención.*

Las empresas beneficiarias presentarán la justificación final de la contratación objeto de la ayuda, en un plazo máximo de 60 días naturales desde la fecha de finalización del periodo de contratación subvencionado y, en todo caso, antes del 12 de septiembre de 2022 y se deberá presentar la siguiente documentación:

— Copias de las nóminas de los meses correspondientes a la contratación.

— Copias de los documentos de cotización a la Seguridad Social de los meses correspondientes a la contratación.

— Cuadro de costes de la contratación subvencionada.

*15. Pago de la subvención.*

La subvención se hará efectiva en dos pagos:

1. El 40 % del importe concedido se abonará tras la emisión de la resolución de concesión de la subvención.

2. El 60 % restante se abonará tras la finalización del periodo subvencionado de la contratación, previa presentación y aprobación de la justificación final de la misma.

*16. Incumplimientos.*

El incumplimiento de cualquier requisito, imputable a la empresa o a la persona contratada por ésta, y que suponga una disminución de la subvención concedida por Lanbide y a percibir por la Mancomunidad Urola Garaia, será repercutida al perceptor de la ayuda con la disminución consiguiente y de manera proporcional de la misma.

*17. Recursos.*

La resolución de la concesión pone fin a la vía administrativa pudiendo interponerse contra la misma recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la resolución ante el órgano que dictó la misma, o interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de 2 meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de esta Comarca.

*18. Protección de datos de carácter personal.*

Con la presentación de la solicitud de subvención, la entidad solicitante da su conformidad y declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente todos los términos de la misma.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento General de Protección de Datos, las entidades solicitantes de las ayudas quedan informadas de que los datos de carácter personal que, en su caso, sean recogidos a través de la presentación de sus solicitudes y demás documentación para proceder a la gestión de las ayudas, serán tratados por esta Mancomunidad con la finalidad de garantizar el adecuado mantenimiento, cumplimiento y control del desarrollo de la convocatoria de ayudas.

*19. Régimen jurídico.*

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases, se estará a lo dispuesto en la Resolución de la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo de 16 de junio de 2021, por la que se aprobó la convocatoria de subvenciones para Acciones Locales de Promoción de Empleo (publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* de 30 de junio de 2021).

EK\CV GAO-I-2021-07563